

**JAIEN ETA EKOIZPEN  
KULTURALAREN  
ANTROPOLOGIARANTZA  
(Zuberoako Herri bateko bestez  
zenbait ohar eta gogoeta)**

Kepa Fernández de Larrinoa\*

---

---

Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía 11. (1994) p. 119-138  
ISSN: 0213-0297  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

---

\*. Antropologia Salla.

*Txosten honen bitartez Zuberoako herri bateko bestetan plazaratu ziren zenbait gertakizunen garrantzia soziala ohararazi nahi nuke. Herri honek Muskildi du izena, eta bestek 1991ko Irailaren 6tik 9ra iraun zuten. Hemen agertzen diren datuak, deskripzioak, iradokizunak eta baieztapenak egun eta gau hauetan nik ikusi dudan horretan eta ikusitako horretaz galdetu dudanari emandako erantzunetan dira oinarritzen. Txostenaren xedea bikoitza da: (1) bestako gertakizun ofizial hauen giroaren berri ematea; eta (2) bai bestak nola antolatu ziren eta bai antolamendu hau komunitateko bizitzarekin nola zegoen harremanua agertzea. Hala eginez, Zuberoako herrietan aparteko indar soziala duten zenbait "gai" honatu nahi ditut. "Gai" etnografiko hauek, bestalde, balore kulturalen eta ikuspegi sozialen aldaketa-prozesu baten barnean aztertu behar dugula argudiatzen dut.*

*En esta comunicación el autor subraya la importancia social de ciertas actividades que se desarrollaron en el verano de 1991 a lo largo de las fiestas celebradas en un pueblo suletino. La comunicación pretende dos objetivos: de un lado, dar a conocer en qué se basó el ambiente festivo; de otro, mostrar cómo las actividades que tuvieron lugar estaban fuertemente ligadas a un modelo de comunidad en continuo proceso de cambio y discusión.*

*This paper focuses on the festival behaviour and social events carried out in a small village of a Basque province called Zuberoa during the summer of 1991. On the one hand, the author shows the grounds upon which a festive atmosphere took place. On the other hand, he points out how a model of community was displayed - a model which was in process of change and discussion.*

**SARRERA<sup>1</sup>**

Txosten honen bitartez Zuberoako herri bateko bestetan plazaratu ziren zenbait gertakizunen garrantziza soziala ohartarazi nahi nuke. Herri honek Muskildi du izena, eta bestek 1991ko Irailaren 6tik 9ra arte iraun zuten. Hemen agertzen diren datuak, deskripzioak, iradokizunak eta baieztapenak egun eta gau hauetan nik ikusi dudan horretan eta ikusitako horretaz galdetu dudanari emandako erantzunetan dira oinarritzen.

Usten dut komeni dela irakurleak aldez aurretik Besten Egitarauaren berri jakin dezan. Hona hemen zer plantatu zen Muskildiko plazan arestian erran datetan:<sup>2</sup>

## Vendredi 6

22 h. Kantaldi  
Xabi Elgart  
J. Bordegaray-R. Carrere  
Bal avec Xinaurri Gorriak

## Samedi 7

23 h. Kantaldi  
Gontzal Mendibil  
Bal avec Akelarre

## Dimanche 8

10.30 Messe, à l'issue Aperitif animé par les Danseurs de Muskuldy  
17 h. Partie de Pelota à Main Nue  
B. Inchauspè-J.L. Durruty contre F. Carricart-M. Etchegoin II  
Intermides de Danses Souletines  
à l'issue et en soirée bal avec Ametsa

---

1. Eusko Ikaskuntzaren "ikerlanetarako diru-laguntza" bati esker osatu ahal dut hona aurkezten dudan artikulu hau.

2. Propagandako kartel edo afixa handiak ezarri ziren beste herrietako tabernetan eta dendetan. Kartel hauek euskeraz nahiz frantsesez egin ziren. Herritarrei, haatik, paperezko kopia txikiago bana eman zitzairen. Hau frantsesez zen idatzia, eta bertatik hartzen dut hona dakardan egitaraua.

Lundi 9

HERRITARREN EGUNA

- 18 h. Défi de la Pastorale  
Zilantz-Perkain contre Durruty-Curutchet
- 19 h. Défi a Yoko Garbi St. Palais-Sauveterre  
Belleau-Etchegoyen contre Feugas-St. Gaudens
- en soirée Souper des Villageois

Programak jakinarazten digunaren arauera, Muskildiko bestak honelako iharduereen bidez agitu ziren: kantaren, dantzaren, frontoiko pilotaren, elizkizunaren, alkohol-edate sozialaren inguruko lagunartearen, eta azkenik, mahaikidetasunaren bidez, hain zuzen. Antropologiaren estudioen harira behatu nahi dudanez gero herri honetako jaietan plazaratu izana, hasi behar dut erraten antropologiak badituela bai abiamuga eta bai helmuga jakinak. Honelako abiamuga du: bestak gertakizun sozialak dira, hots, gizakideen arteko aktibitateak dira. Helmuga, bestalde, honakoa du: "gizartetasun hori" zertan datzan eta nola gorpuzten den adieraztea. Honetara, "gizarte iharduera" lez aztertu behar ditugu Muskildin paratu ziren (1) kantak, (2) dantzak, (3) frontoiko pilota-partiduak, (4) elizkizunak, eta (5) ostatuan nahiz etxean elkarrekin edateak eta jateak girotzen zituzten harremanak.

Txosten honen xedea bikoitza da: (1) bestako gertakizun ofizial hauen giroaren berri ematea; eta (2) bai bestak nola antolatu ziren eta bai antolamendu hau komunitateko bizitzarekin nola zegoen harremandua agertzea. Hala eginez, Zuberoako herrietan aparteko indar soziala duten zenbait "gai" honatu nahi ditut. "Gai" etnografiko hauek, bestalde, balore kulturalen eta ikuspegi sozialen aldaketa-prozesu baten barnean aztertu behar dugula ikusteko aukera ukanen dugu.

## BAT

Zuberoako herrietan izugarrizko inportantzia soziala duen egite bat suertatu zen 1991. urtean Muskildin: muskildiarrek Pastoral bat eman zuten. Birritan herrian bertan, Uztailaren amaieran eta Agorriaren hasieran. Irailearen lehenean Donibane Lohitzunen hirugarren aldiz errepresentatu zuten. Laugarrenez Gipuzkoako Arrasate herrian. Eta bostgarrenez Donostiako Victoria Eugenia Antzerkian emanik izan zen Muskildiko Pastoral.

Pastoral bat komunitate batek antez dezan anitz herritar behar da bildu, eta pertsona berauei lan itzela eskatzen zaie urtean zehar, lan hau tekniko zein artistikoa izanik. Saio ugari eta serioak bete behar dira, eta hala suertatzeak<sup>3</sup> eragin handia du herriko bizimoduan, giro berezia sortarazten delarik.

Muskildin 1991. urtean eman zen Pastoral orduko herriko bestetara joan zen, eta bate-tik besterako bidea zenbait modu ezberdinez ibilia izan zen. Jaietako lehenbiziko gauean antolatu zena zuzen-zuzenean garamatza Pastoralara. Ikus dezagun.

Xabi Elgart Muskildiko San Antoni auzoan bizi da, zazpi urte ditu, eta Pastoralan jokatu duen papera biziki deigarria izan zen. Pastoralak Harizpe marexalaren bizitza antzeztu zuen, eta Xabi istorian zehar bi bider agertzen zen antzeztoki gainera bere kabuz kantatzeko.

---

3. Saio hauei "errepeticioak" edo "monstrakak" derizete zuberotarrek.

Hogeitabigarren jelkaldian Dutey Harizperen kargua jokatzeko zuen. Harizpe marexalak semetzat hartzen zuenean hain zuzen ere. Jelkaldi hau Pastoralaren ohizko bertsetez kantaturik, Harizpe aita honelaxe hasi zen:

- 150 Semea galdüz geroztik  
Nehor ez beit düt ondotik  
Hartzen hait primü bezala  
Beit gira ber odoletik
- 151 Harizpen deitüra beit da  
Orai fama handikoa  
Izan hadi oso zintzo  
Ohora ezak izena
- 152 Hi Eüskaldunen semea  
Ez ahantz Eüskal Herria  
Partikularzki Eüskera  
Gure hizkuntza xaharra

Dutey Harizpek, hots Xabi Elgartek, honela erantzun zion:

- 153 Egün batez eginen dit  
Libürü bat zure biziak  
Egon zitean memorietan  
Hori segürki Eüskeraz

Muskildiarrek eman zituzten lau errepresentazioetan ikusi nuenez, bertseta honek publikoaren bihotzak azkarki biztu zituen. Bertseta ematen bukatu ondoren entzun ahal izaten ziren esku-xartek hala atortzen zuten. Bertseten edukiaz gain, mutilaren abots ederrak berea kontribuitu zuen arrakasta sor zedin.

Hogeitaseigarren jelkaldian berriz ere azaldu zen Dutey Harizpe, Xabi Elgart, antzeztokira. Oraingoan Margarita bere amarekin aldizka honakoa kantatuz:

- D.H. Ama ama non da aita  
Nonko ühainetan orai sartüa  
Ikusi düt ametsetan  
Mila aingürüen besoan  
Zilarrezko odeietan  
Ehün zaldiko ürrezko karrosan  
Batean eni hüilantzen  
Bestean aldiz lühartzen
- M. Haurra haurra so'gin ezak  
Hortxen diren haritz zahar ederrak  
Primaderak beztitüak  
Neguak gero bilaiziak  
  
Aita bigarren bizian  
Sartü da orai bere tenorean  
Egürük ezak primadera  
Beteko deik berriz bihotza

- D.H. Ama ama aita bezala  
Gero nūkezū ni ere soldadoa  
Deūseren ez nūkezū lotsa  
Jinik ere gaūaz otsoa
- Ez dūt ūtziko herria  
Nonbaiko etsaien aztaparretan  
Ibiliko aitzinean  
Aitaren montūra xurian
- M. Haurra haurra ūlūna da  
Senditzen dūt zenaren freskoa  
Bihar ere jinen gira  
Berriz aitaren ikustera
- Matatū dūtūgūnak  
Ez beit dirade sekūlan galdūak  
Bizi dira gurellan  
Gure Bihotzaren barnean

Jelkaldi hau hilobi baten aurrean agitzen zen, mutilak lore sorta bat eskuan zuela. Bi jokalariek kantua emaitzen zutenean jendearen txaloak izugarri biziak izan ziren, kantua zinez hunkigarria bait zen berek antzeztu zuten gisara<sup>4</sup>.

Lehenbiziko gau honetan arazo tekniko batzu gertatu ziren soinuarekin, eta berandu hasi zen kantaldia. Xabi Elgarten ondoren bazen musika-talde bat. Talde hau, ordea, ez zen ordurako prest, eta herriko gazte batek, antzeztokira igo eta mikroa harturik, barkamenak eskatu zituen. Eta erran zion publikoari Solange Chimix ere han egon izan balitza, kantu zen-bait emanen zukeen bizkitartean.

Solange Chimix Harizpe Pastoralaren emazte "sujeta" edo protagonista zen. Xabi bezala, emakume hau ez zen kantari profesionala, jokatuak zituen Pastoraletan bakarrik kantatua zuen. Antolatzailei eta aurkezleari egokia iruditu zitzaizen Solange Chimixek Harizpe Pastoralan abestu zituen kanta batzu eman zitzaizen herriko besten hasieran.

## BI

Herriko jaiek beste ezaugarri inportante bat erakutsi zuten: mahaikidetasuna. Bi tokitan suertatu zen mahaikidetasun hau: etxean eta ostatuan. Bestalde, egun eta otordu-moeta ofizial bana ukan zituzten bi toki hauek. Etxekoa igandean suertatu zen, bazkaria izanik otordurik garrantzitsuena. Igandeko mezaren ondoren herriko dantzariak aritu ziren, geroago aperitiboa herriko ostatu zaharrearantz hartu zuten, eta azkenik (ordubiak aldera) bazkaria etxean egin zen.

---

4. Abesti honetaz beste zerbait erran behar dugu: Xabi Elgartek kantatu lehenengo zatiak "ama ama non da aita" herriko haurrek berehala ikasi zuten aurreko saio orokorretan, eta normala zen kantuaren lelo hau beraiek ere sasi-kantatzea Pastoralaren errepetizioen hatsenaldietan.

“Familia” bildu zen etxean: aitamak, aitonamonak, anai-arrebak, senide politikoak, ilobak, lobak. Anitz jende elkartu, bapo jan, deus ere falta ez zela. Alde batetik, bazkaria solemnea zen, etxeko emazteen ardurapenean zuzenduta; bestetik, giroa informala zen. Bazkari luzea izan zen, zenbait kasutan ia afariarekin bateginez<sup>5</sup>.

Ostatuko otordua astelehenez plantatu zen, herritarren arteko pilota-partiden ondoren, gauean, “ahiarria” edo afaria zelarik, mahaikideak gehienbat “gazteak” izanik. Herriko gazteak arduratu ziren afari honen xehetasun guztiez. Afari ona eta arina. Orain ere mahaiosteko luzea suertatu zitzaizen batzuri, goizaldean “askaldurik” etxera erretiratu bait zirenei. Afalondoan kantatzeari ekin zitzaion, eta Pastoralaren kantuek presentzia handia ukan zuten.

Literatura antropologikoak aspaldian azpimarratu zuen besta-giroan berrindartzen den elkarrekin jatearen eta edatearen garrantzia, eta Muskildiko jaietan elkarrekin jan eta edan zenetan oro Harizpe Pastoralaren kantek ukan zuten lehentasun nabaria. Bestalde, mahaiki-detasun ofiziala, erran bezala, bi toki, bi egun, bi mementu eta bi giro ezberdinetan banatu zen: etxea eta ostatua; igandea eta astelehena; eguerdia eta gauerdia; solemnitatea eta sinpletasuna; etxeko familia eta ostatuko gazte-koadrilak.

## HIRU

Frontoiko pilota-partiduak ere eskeini ziren bestan zehar. Frontoia eta pilotaren kirola herriro dago errotuta Euskalerrian. Euskal kirolak modu ezberdinez interpretatuak izan badira ere, ikerketa gehienek nekazal gizarteko kirolak “indarraren” erakuspen publiko-erritualak direla azpimarratu dute<sup>6</sup>. Nik neuk aztertu ditut euskal kirolen esanahia baseritik kanpoko testuinguru sozio-kultural batean, Estatu Batuetako euskal festibalez idatziriko saio batean, hain zuzen. Entseiu horretan “eskuak” giltzeko metafora sozial bilakatzeko zirela argudiatzen nuen. Oraingo txosten honetan, osteria, euskal kirolari erantsi beste metafora edo irudi eta beste esanahi ezberdin batzuei ohartarazi nahi ditut: segun eta zein kontesturen barruan eta zein erreferenteren begira erabiltzen diren, suertatu egiten dira “pilota” eta “frontoia” irudien eta metaforen esangurak.

Herriko bestak Muskildin zirela eta, elkarrekiko eta jende aurreko kantuei buruz zerbait ihardun dut lehen. Kantuetara ezezik, plazan jokatu ziren pilota-partiduetara ere hedatu zen Pastoralaren itzala.

Harizpe Pastoralaren Bederatzigarren Jelkaldian honakoa suertatu zen. Arrabotua edo frontoiaren aurreko pareta antzeko zerbait lekuratu zen teatroaren zola gainera; bai turken atetik eta bai kristien atetik jende-ileria bana eratu ziren, hauen artean lau pilotari eta tantuen kantaria jarri ziren. Istoriari jarraikiz, Baigorriko plazan zeuden Frantziako Erreboluzio garaian, eta desapio bat plantatzen zen: Durruti, Kurutxet, Zilantz eta Perkain binakako eskuzko jokoa. Jokalariek hiru estrofa hauek kantatu zituzten:

5. Herriko etxe batean bazkaltzen gonbidatu zidaten. Aurkezten ditudan datuak ikusi eta bizi nuen giroan oinarritzen dira. Geroago baieztatzen nuen giro hau jenerala izan zela ia herri osoan.

6. Ikus esate baterako Agirre (1977), Douglass eta Bilbao (1988).



1. Agertzen dira xuriz bezi  
Sendo et'ospagari  
Ekitoltzean, hain süharki  
Gero pelota aidatzen da  
Gero eta Gorago  
Esküak direlarik, aski bero
2. Indar bezain beste adrezia  
pelotakari bezain  
Agertzen dira, dantzari fi  
Ospa txapeldün famatüer  
Ezagüner bai bester  
Eta partikülarzki, eskü hüskarier
3. Kirol ederra da pelota  
Zertako dira ordüan  
Gure herriko plazak, haien libro?  
Arrabotüetan herdoia  
Hil delari herria  
Pelotaren nigarrak, ala odola?

Pilotarien kantu bakoitzaren artean jende-iladek hauxe errepikatzen zuten:

Eüskaldun Pelotarier  
Elfa xüri ejerrer  
Plazetako izarrer  
Goraintzi ta mil esker  
Eüskaldün kirola  
Hain Maitagarria  
Bihar dükezü berriz  
Atzoko loria!!

Zenbait gauza ditugu aipatzeko: lehenbizi, indarraren ideia agertzen da; bigarrenaz, pilotarien ohorea dantzarietarako agertzen dute<sup>7</sup>; hirugarrenaz, plazako arrabotüaren herdoila "metafora" sozial bihurtzen da; eta azkenik, pilota-partidua desapioa da. Azken bi puntuotan dihardut segidan.

Zuberoa bi kantonamendutan dago bananduta, Maulekoa eta Atarratzekoa. Atarratzeko aldea mendia da, Pirinioa, "bortüa". Maulekoa, muinotsua izanik ere, zelaiagoa da, "petarra". Bai Mauleko eta bai Atarratzeko aldeko laborari-etxeak husten ari dira, ia industriarik ez dago, dauden enpresek gero eta langile gutxiago dituztelarik.

Ondorioz, gero eta jende gutxiago bizi da Zuberoan, eta zuberotarrek egoera honetaz aspaldian jabeturik, badute, ukan ere, "Zuberoa hiltzen ari dela" auhena. Gazterik gutxi da, eta eguneroko bizimoduan, herriko plazan, frontoiaren erabilpenean antzematen da falta hau. Frontoiko "herdoilak", plazako pilotarien ezak gizarte-egoera latza hau agertu nahi du: "hil delarik herria"; eta poetikoagoki: "bihar dükezü berriz atzoko loria"...

---

7. Geroago ihardunen dut amini bat eta sarrera gisa dantzaren signifikantaz Zuberoako gizartean.

Era berean, Baigorriko pilota-partidua desapio da. Desapio hau Pastoralaren kontakizunetik Muskildiko plazara bertara eraman zen. Muskildiko besten programak honelaxe iragaritzen zuen: Astelehena 9, Herritarren Eguna, 18 h. Défi de la Pastorale, Zilantz-Perkain contre Durruty-Curutchet. Izen hauek Pastoralaren karguak dira, Muskildiko lau gazteek jokatu izanak. Lau gazte hauek erabaki zuten herriko bestetan 'benetazko', 'egiazko' egitea istoriaren eskuzko partidua. Egia erran, batek ezik, gazte hauek ez zuten pilotan normalean iharduten, beraz oso informalki plazaratu zen partidua, txantxa eta umore ona izan zelarik nagusi bai pelotarien artean eta bai ikusleen (gehienbat muskildiarren) artean<sup>8</sup>.

## LAU

Euskalerriko jaietan elizak paper handia jokatu eta jokatzen du. Lehen, agian handiagoa zen oraingoa baino paper hau. Oraintsu arte burutu dira gizarte baserriarren gertakizun sozial gehienak elizaren bitartez, apaizek arartekoaren errola hartuz. Elizako zeremoniak, eliz barrukoak zein kanpokoak, murriztu dira aspaldi honetan. Lehen bizpahiru apaiz bazen herri-oro, orain, ostera, apaiz bat hiru herrirako antzematen bada, ez da proportzio txarra. Erretoretxeak, frontoiak eta laborari-etxeak bezala, husten ari dira. Muskildin ere holako zerbait gertatu da, zeren eta hogeit bat urte joan dira Muskildin apaizarik bizi ez denez geroztik. Garendainen bizi da Muskildiko arimez arduratzen den apaiza. Hau, beraz, astean behin meza ematera baino ez da herrira agertzen normalki. Orduan, tokian tokiko harreman sozialak bideratzeko elizak lehen zituen indarra eta eragina ez ditu orain erakusten. Komunitatea sinbolikoki osa dadin, edo herriko jendea elkarrekin ari izateko kontestu erritualak (elizaren bitartez bideratzen zirenak) desagertu ez badira, krisialdi gorrian daude.

Muskildiko besta hauetako elizkizuna igandeko hamar t'erdietan izan zen. Orduan bazen hiru urte elizkizun honek bazuela esangura berezirik muskildiarrentzat oro har, gazteentzat partikularzki, eta partikularzkiago herriko etxe batekoentzat. Elizako bilkura hartan zenbat irudi elkartzen ziren. Banan-banan beha ditzagun bildu ziren irudi eta talde sozialak.

Honako 'egiteak' ematen zion signifikantza sozial berezia mezari: meza herriko gazteek eskeintzen zioten iadanik hiru urte istripuz hila zen beste herritar gazte bati. Gazte honek bazuen paper inportante, funtsezko bat jokatzen gazteen portabide erritualetan: dantzaria zen, zamalzaina.

Geroago ikusiko dugunez, Zuberoako gizartean gazteak, talde autonomo lez, eta dantzariak, herrien ordezkari bezala ulertuta, izugarriko eragina dute. Mutil honen heriotzak bete-betean jo zituen herria eta herriko gazteak, zeren eta joana bait zitzaien dantzari trebe, gazte eta berri bat<sup>9</sup>. Bere ehorzketa ere berezia zen: kantu berriak konposatuak izan ziren espreski berari kantatzeko, eta dantzariak bere ohorez dantza egin zuten, eta erabaki zen ordutik aurrera jaietako meza beraren oroitzapenean emanik izan zedin. Herriko beste gazte batek honelaxe erraten zidan: "badakika zer den hau bezalako herri txipi batetan halako gazte bat hil dadin?"

8. Izatez, Pastoralan pilotakari izan zen batek ez zekien bat ere pilotan eta herriko beste batek ordezkatu zuen.

9. Datorren atalean adierazten dut dantzaren gaia, alde batetik Zuberoako instituzio sozial bezala, eta bestetik Muskildiko kasu bereizgarriaren arauera. Zazpigarren atalean dihardut gazte-taldearen garrantzia soziologikoaz.

Plazako arrabotüaren herdozilda heriotza sozialaren metafora baldin bazen, dantzari gazte trebeenetako baten heriotzak are eta mezu gogorragoa ekarri zion herriari, eta hala espresatu zuen herriak ehorzketan, eta hala espresatzen dute urtez urte herriko gazteek jaietako mezan. 1991. urteko Irailak 8an hamar t'erdietan hor ziren Muskildiko elizan herriko dantzariak eta gainontzeko gazteak beren lagun zenduari berriz agur erratan.

## BOST

Jaietan hobekien ikusi zen Pastoralaren eragina dantza zen. Guztira hogeitabost dantzari ari izan ziren igande hartan, denak muskildiarak. Muskildiko dantza kasu berezia da, eta txosten honetan Muskildiko dantzaren azterketari sarreratxo bat besterik ez dut ekarriko.

G. Hérelle-rengandik badakigu 1848.ko eta 1849.ko Abuztuan Saint Jacques izeneko Pastoral emanik izan zela Muskildin. 1883. urtean, Irailak 13an Roland jokatu zen Muskildin (R.I.E.V. zenk. 3, 1907ko Maiatza). Ordudanik 1985.eko Uztailak 28ra arte ez zen beste Pastoralarik eman herri honetan. Baita ere erratekoa da mende honetako lehen Maskarada Muskildin 1987. urtean eman zela. Maskaradak eta Pastoralak antzezteko dantzariak behar dira. Ez edonolakoak, gero! Zuberoako dantzak erregela eta usadio jakinak baditu. "Puntuak" edo dantza egiteko behar diren oin-mugimenduen unitateak, lehendabizi, etxean ikasten dira, eta gero herrian. "Puntu" hauek herri baten ezaguera bilakatzen dira, askotan nolako puntuak erabiltzen direnaren arauera bereizten dutela herriek elkar. Beraz, bada dantzarien eta herrien artean atxikimendu handi bat, zeinaren ondorioz dantzariak (Pastoralak eta Maskaradak bezala) beren herrien ordezkari bihurtzen bait dira.

Zuberoako herri batzu betidanik izan dira ezagunak beren dantzariengatik: Barkoxe, Altzürükü, Urdiñarbe... Dantza instituzionalizaturik dago herri hauetan: herriaren barnean irakatsia da dantzak irauin dezan, dantzari berriek segi dezaten herria ordezkatzeko gertakizun publiko-erritual garrantzitsuetan. Hau ez zen Muskildiko kasua. 1985. urtera arte Pastoral edo Maskarada emateko hainako eta bezalako dantzari ez zen herrian. Beraz, prestatu behar ukan zituzten. Prestaketa honen emaitza zuzenaz, Oihenarte Pastoral zuten plazara ekarri. Eta gaur egun herriak badu bere "dantza-eskola". 1991.eko Irailak 8an, igandean, ihardun zuten hogeitabost dantzariak dantza-eskola honen fruitu zen, eta Muskildin, orain Zuberoako izen handiko beste herrietan bezala, herritarrek herritarrek hezten dituzten dantzariak: alegia, Muskildik asmatu, prestatu puntu-konbinaketan.

Igande hartan hiru taldetan banatu ziren dantzariak: (1) gazteenek (hamalau bat gazteek), bai neska eta bai mutil, zuriz jantzirik, txapela eta gerriko gorri, talde bezala dantzatu zituzten berentzat konposatu zenbait dantza; (2) beste talde batek (bost lagunek) dantzatu zuten plazan Pastoraletako satanen jantziak bezalakoak; (3) beste talde batek (trebeenek) Maskaradetako dantzak antzeztu zituzten.

Dantzarien lanari begira ari nintzaiola, nire aurrean bazen herritar helduen taldetxo bat. Hauetako batek beste bati "denak muskildiarak dira?" galdetzen ziola entzun nuen. "Bai, herria handia da eta!" irriparez erantzun zuen. Aipamen hau interesgarria da, zeren eta duela hamar urte dantzariak Muskildin ez egon arren, populazio gehixeagoa bazuen. Paradoxikoki, prozesu hau gertatzen ari da mendearen bukaeran: herria demografikoki "murrizten" ari bada ere, dantzaren (Pastoralaren eta Maskaraden) eraginaz herriaren izena "hedatzen" ari da.

## SEI

Pastoralaren eragina nabaria izan zen Muskildiko besteetan, bai programa ofizialean eta bai plazako bestagiroan eta lagunartean. Hala izan zela erakusteko, egitarauan nahiz jendearen jokabidean agertu ziren adibide batzu ekarri ditut txostenera.

Kanta, dantza, pilota, etxea, ostatua, plaza eta eliza dira iharduera eta espazio printzipalak Zuberoako laborari-herrietako jaietan. Hauek banan-banan eta behar duten sakontasunez adieraztea lerro hauen helmugatik urruti dago<sup>10</sup>. Aztertu behar diren arazo batzu aipatze hutsagatik derragun, lehendabizi, ezen "kanta" diogunean, badela kanta-moeta diferenterik. Zuberoan "kanta" erratez, alde batetik, ohizko kantuak edo kantu tradizionalak ditugu, beste alde batetik, rock, pop, folk eta abar gehiago baditugu. Eta denak elkarbizi direla Zuberoako bestetan ezin da ukatu. Kantu "tradizional"ari gagozkiola, "abots"aren definizioa significantza handikoa da, kantatzeko moldea ere berezia delarik. Signifikantza eta berezitasun hauen edukia zertan datzan aztertzeok dira, eta, beraz, etnomusikologiak lan latza du oraindik ere Zuberoak eskeintzen duen etnografiarekin. Kantu "moderno"ari dagokiola, Hegoaldeko jokaerak influentzia handia duela erran beharra dago<sup>11</sup>. Adibide gisa, Muskildin musika jo zezaten, Gontzal Mendibil eta Akelarre deituak izan zirela gogoratu behar dugu. Kantuen eta kantatzeko tankeren arteko balantza eta erlazioa zernolakoak ziren ikustea konplexua da, eta gizarte bizimoduaren esparru eta aspektu hauen pisuak eta indarrak oraindik diraute neur-tzeke.

Dantzari buruzko azterketan ere kontuz ibili behar gara. Arestian, kantuen kasuan bezala, dantza "tradizionalaz" ihardun dut. Aldiz, bazen Muskildiko plazan bestelako dantzarik. Xinaurri Gorriek edo Akelarrek jo zutenean, ez satan ez godalet dantzarik ez genuen ikusi. *Hemen ere dantza-moeten espazioak, denborak eta balorazio sozio-kulturalak aztertu behar dira*. Esate baterako, dantza "tradizionala" eskusiboki gizonezko iharduera izan da oraintsu arte, 1980.eko hamarkadara arte neskari ez zen Maskaradetan. Pastoralak emakumezkoak izan zitezkeen arren, dantzariak mutilak ziren. Orain badira dantzaritsa gehiago mutil dantzariak baino, eta hau suertatzeak dantza "tradizionala"ren berdefinizioa ekarri du.

Kanta-eraren eta dantza-eraren kasuan bezalaxe, pilotaren, etxearen, ostatuaren, plazaren, eta elizaren pisu eta indar sozialak ere herriko eta herriz kanpoko beste gertakizun eta instituzio sozialekiko balantzan ikasi behar dira.

## ZAZPI

Iparraldeko herri gehienek bestek bezala, Muskildiko jaiak badute berezitasun oso esan-guratsu bat. Jaiak herriko gazteek antolatzen dituzte. Jokabide hau behatu behar dugu xehe-tasun gehiagorik.

---

10. Eusko Ikaskuntzaren Angel de Apraiz diru-laguntzaren esker, agertu berri ditudan gizarte ihardueraz eta espazioez dihardut prestatzen ari naizen saio luze eta sakonago batetan.

11. Hegoaldeko euskal kanta modernoak, bestalde, gizarte anglofonoen hegemonia kulturalaren eragina nabaria da.

Hasiko naiz analizatzen Iparraldeko gazteek praktikatzen duten jokabide bat: "etxe-inguruka" edo, Zuberoeraz erranik, "obetaka". Muskildiko jaiak zelebratu ziren astean herriko gazteak etxez etxe joan ziren diru biltzen. Eskaera hau tankera erritual baten bidez plantatzen da urtez urte. Dakusagun.

Abuztuaren 31ean, larunbateko arratsaldean, Muskildiko neska-mutilak bildu ziren herriko plazan. Zera erabakia zuten egitea: larunbat hartan herri-inguruetako baserriak bisitatzea, eta Irailak 7an karrikako etxeak, hots, kaleko edo herriguneko etxebizitzak. Bi arratsaldeetan bi taldetan banatu ziren herriko gazteak, Muskildiko etxalteetara joateko asmoz. Nik neuk bigarren arratsaldean lagundu nituen gazteak beren bisita bidean.

Donibane Garazitik Maulerako karretera Muskildira heltzean kaminoaren bi ertzetan dauden etxeak "karrika" izendatzen dira. Denak ez dira laborari-etxeak. Kaminoa goitik behera dator. Talde bat goikaldetik eta bestea behekaldeetik hasi ziren. Nik behekaldeko etxeetara bisiten lekukoa izan nintzen.

Hamarren bat lagun ginen. Hamabost-hogeitabost urte bitarteko adina zuten. Etxe bateko atarian geratu eta txirulariak soinua jo zuen. Etxeko nagusia eta etxeko anderea irten ziren, atea ireki eta gero. Berauen aintzinean eta soinuaren arauera bost neska-mutilek, banan-banan batek bestearen ondotik, dantzatu zuten. Bukatu zutenean, etxera sartu ginen, sukaldera, hain zuzen. Mahai gainean baziren plater bat gaileta bete, eta, baita ere, basu bana guri zai. Ricard, garagardoa, ardo zuri, ardo gorri eta oragine artetik eskeini zitzaigun edateko. Mahai inguruan ezarrita, elestan ginen. Gehiago jan eta edan genezan behin eta berriro eskatzen ziguten etxeko nagusiek. Taldearen buruak etxekoei sobre zuri bat eman zien, barruan jaien egitaraua egonik. Pixkat geroxeago, sobrea itzuli zen gazte taldera, bertan zenbait diru zelarik. Biltzen ari ziren diru hau herriko bestak antolatzekeo zen. Etxe gehiagoko bisitatu beharra zegoela atxakiarekin partitu ginen. Hasieran formal eta serio ginen etxean, piskanaka giro informalago eta txantxakoago batera igaroz.

Urrengo etxera zuzendu ginen. Jabetu nintzen etxe bat utzi genuela albora, bisitatzeke. Etxeko bat urte hartan hilik zela eta, dolua begiratzen zutela ihardetsi zidaten. Hala egiten da dolu den etxe denetan oro, hau da, ez dira bisitatzen edo, bestela erranik, ez dira "beren barrura sartzen". Hil dena 'gaztea' bada, dolu gisa ez da deus ere bestarik egiten herrian. Badirudi herriko jaiak gazteen iharduera baino ez dela, berek kontrol eta autonomia osoa dutelarik.

Bigarren etxeko nagusien aurrean ez zen dantza egin. Soilki, txirula laburrez jo zuen batek, etorreraren igarpen antzera. Etxeko nagusiak barrura igaro gintezen ohartu ondoren, sukaldeko mahaiaren inguruan ezeri ginen, lehengo etxean bezala. Eta lehen bezala, jatekorik eta edatekorik bazen: madalenak, pastak, ricard oragine eta garagardoa. Neskek orangine edatera jotzen zuten; mutilek, ordea, alkohola hautatzen zuten. Lehen bezala, sobrea eman eta jaso zuten. Eta behin eta berriz betetzen zituen basuak etxeko nagusiak.

Beste bi etxetan ezik, gauza bera gertatu zen kasu guztietan. Bi salbuespenak hauek ziren. Etxe batean, etxeko anderea atera irten eta sobrea hartu zuen, gu sartzen gonbidatu gabe. Zer gertatzen zen nik galdetzean, gazte bati entzuten diot zaharrak zirela han bizi zirenak, eta ez zutela maite burrunba. Bigarren kasuan inor ez zegoen etxean. Hala ere sobrea utzi zuten atearen ondoan.

Etxe-inguruka edo 'obetaka' honen giroa zela-eta, zenbait ideia ohartaraztea komeni da. Alde batetik, "etxearen itxitura" dugu<sup>12</sup>, "etxearen unibertso pribatua" alegia; beste alde batetik, etxearen unibertso pribatu hau kaleko bizimoduari oposatzen zaio<sup>13</sup>. Muskildiko gazteek praktikatzen zuten erritual honen xehetasunak kontutan harturik, bi mundu hauen arteko oposaketa edo 'tentsioa' bertan dramatizatua antzematen dugu.

Lehendabizi, erran beharra dago "etxera sartzen" dela dantzaren bitartez; hots, dantza erritualaren bidez etxeko nagusien baimena eskatzen da. Etxeko nagusiek baietza emateke, ez dago barrura sartzerik. Muskildin hala gertatzen zela ikustarazi dut arestian. Zuberoako gazteen beste jokabide erritual bat adibide jarrita, noraino heldu nahi dudan argituko dudalakoan nago.

Zuberoako gazteek Maskaradak zelebratzen dituztenean, herri batera sartzeko edo etxe batean gelditzeko "barrikada" bat hautsi behar dute. Oztoporik badela endelegatzen bide da, eta eragozpen hau (sinbolikoki) gainditua izan dadin dantza egiten da, eta dantza apur-tzen dute delako barrikada. Dantzatzen amaitzean, hots, barrikada hautsia denean, "herrira sartzeko" bidea dago; fisikoki inongo etxera ez badira barruratzen goizeko karrika-inguruan, etxekoekin etxe ondoan gailetak eta ardoa hartzeko bidea dago, "etxean sartu balira bezala"<sup>14</sup>.

Maskaradetako paralelismoa zilegi bazaigu, orduan baieztatu dezakegu ezen Muskildiko gazteek 'obetakan' ari direnean, eta beren herriko etxeak bisitatzen dituztenean, oztopo bat gainditu beharrean daudela atarian. Ez dute nola edo hala beren auzoen etxeetara sartzerik.

Baina, behin sartuz gero, ez dago edonondik ibiltzerik: Harremanetarako espazioa sukaldea da. Etxeko beste gela batera, beste espazio batera ez da joaten, ametituta ez dago eta. Holakorik egitea ez dela onartua biziki barneratua dute aktore edo agente sozialek. Esate baterako, ni bizi nintzen etxea<sup>15</sup> bisitatu genuen. Kafea edaten eta elestan ari ginela, hogeitamar urteko gazte bat sartu zen. Denok sukaldean geunden. Pixkat geroxeago, jakin-gurak gidaturik, sartu berriak beste gelak ere ikusi nahi zituela-eta, aldameneko gelara sartzan saiatzean, beste gazteak aho batean hasi ziren "uuuuuh" egiten, bere jokaerarengatik erreita eginez. Berehala jo zuen honek atzera, eta ez zen gehiagotan bere aulkitik mugitu etxetik abiatu arte.

Bestelako adibiderik gertatu zen. Esate baterako, arratsaldea aintzina joan ahala, giltzur-rinak alkoholez larkagaturik, gorputzak pizagale ziren. Mutilei zegokiela behinik behin, beren keinu nabariekin pizagale zirela jakinarazten zuten. Hau txantxa eta hitz-jokoen atxakia

---

12. Joseba Zulaikak (1986) idatzirik entseu batean aurki daitezke euskal itxituraren oinarri linguistiko nahiz mitopoetikoak.

13. Ideia honen berri zehatzagoa ematen dut *Hitzak, Denbora eta Espazioa* (1991) deritzodan saioan.

14. Erran liteke herriko etxeetan sartzan direla, zeren eta eguerdiko bazkaria bisitatzen duten herriko etxeetan egiten bait dute.

15. Ekainean joan nintzen Muskildin bizi izatera, antropologiak deritzan "bertako ihardueran" ari izateko. Abuztura arte plazan bizi nintzen. Geroago, Irailaren lehenean karrikako etxe bat alokatu nuen. Etxe honetara ere sartu ginen nik neuk prestatu kafea eta patxarana edateko.

zen. Hala ere, beste etxe batera zuzendu arte, inork ez zuen sukaldetik irteten. Etxeko komunan ezik, bide ertzean hor nonbait husten zuten beren karga.

Halako batean, ez nuen nik hura egin, eta agian araudien aurka, komunerako bidea eskatu nuen etxe batean. Bueltatzean, sukaldean berriz sartzeko ate bat ireki eta bertatik igaro behar nuen. Hori bera egiten ari nintzela, gazte batek erran zidan ironia handiz: “uum, etxea ezagutzen duk... umm...”

Tentsio honetan bi ziren erreferentzi puntuak. Bateko, *etxeak* eta bere ordezkariak, etxe-ko jauna eta etxe-ko anderea. Besteko herriko *gazteak*. Hemen bazen paradoxa handi bat. Euskal kulturaren alde batetik, etxe bakoitzak nortasun propioa, berezia du. Etxea da laborarigizartearen antolamenduaren hastapena, printzipio eta erdiko funtsezkoena. Beste alde batetik, gazteei gagozkiela, talde honen kideak banaka ikusten ditugunean, haietariko bakoitzak etxe bati atxekitzen dio. Aldiz, talde sozial bezala, hots, neska-mutil hauek ekintza sozialerako unitate autonomo bezala ikusten ditugunean, etxearen printzipioa zeharkatzen dute, eta nolabait errateko, etxearen ulkerera sozio-kulturala irauli egiten dute; herriko gazteen taldea aparteko unitate sozial bat bilakatzean, beren gurasoek duten etxearekiko atximendu gogorra eta beren etxeen arteko banaketa barreiatu edo ahultzen da. Beraz, ‘obetaka’ agitzen denean, eta herriko gazteak herriko etxeen sukaldeetan sartzen direnean, honakoak topatzen dira buruz buru: (1) baserri banako bakoitzaren ordezkariak, *etxe-ko nagusiak* hain zuzen; eta (2) baserri banakoak oro zeharkatzen dituen beste batasun bat, *gazteen taldea*.

Honetara, ‘obetaka’ko bisitarekin hastapen sozial ezberdinek elkar topatzen dute, tentsio bat sortaraziz. Eta, nolabait ere, alkohola dugu tentsio hau neurtzen zuten elementuetarik bat.

Bisitariak, lotsatuena eginez, ez zuten hasiera batean deusetik hartzen, nagusiek ez bazuten insistitzen. Areago, gehienetan zerbitzarien lana egin behar zuten nagusiek, normalean banan-banan denon basuak betetzen zituela. Lehenengo begiratu batean, bazirudien nagusia zerbitzari ari zela. Kontestu eta prozesu osoa ohartuz gero, inbertsio edo paper sozialen iraulpen bat baino, bestelako gertakizun bat genuen: tirabira bat hain zuzen ere.

Arratsaldea aurrera joan ahala, ricard besterik ez zen zerbitzatzeko etxeetan. Etxeko nagusia birritan eta hiru bider ere saiaturen zen basuak betetzen. Alde batetik, anfitrioren papera esajeratzen zuen nabarmenez etxe-ko nagusiak. Beste alde batetik, gazteek errefusatu ohi zuten esku eta gorputz-keinuka, nabarkiro espresatzeko aski alkohol edana zutela. Mozkortzeko arriskua aurre-aurrean zen, eta zera aurrera dezakegu: ‘obetaka’ko elkartruke sozialean, bi taldek beren indarrak eta ahuleziak erakusten zizkioten elkarri.

## ZORTZI

Halaber, etxe-inguruka edo obetakaren jokabidea aztertzeak nekazal gizarte honetako gazteek daukaten autonomia edo buru-jabetasuna ohartarazten du. Tradizionalki, gazteek antolatuta edo antolatzen dituzte Zuberoko gizartearen ihauteriak eta toberak edo astolasterrak; bietan gazteak dira protagonista, biak gazteen espresabide dira, biek tokian tokiko bizimoduari kritika edo kontrol soziala ekarri.

Lehenago, Muskildiko gazteak batzen ziren ihauterietan etxez etxe ibiltzeko, bertan lukainak eta bestelako txerri-puxkak biltzeko, eta bildua gero jateko. Herriko bestak antolatzeko ere biltzen ziren. Berek erabakitzen zuten zer, nor eta noiz ekarri. Europako gerla oste-

an, bestak egun bakarrekoak izaten ziren, soinua saxo bat edo izaki, plazara sartzeko 'borondatea' eskatzen zutelarik. Orduan neskek ez zuten gazteen taldean parte hartzerik. Gizonezko elkarte zen, eta duela hamasei urtera arte ez zen neskarik egoten gazteen taldean. Taldean, erran bezala, denak mutilak ziren. Biltokia, udaletxea bezala, elizako gela batean zuten. Herriko eskola berritu zenean udaletxea eskola-gainera pasa zen, eta gazteen biltoki bat ere ondoan eraiki zen. Orain neskek ere parte hartzen dute. Neskak zein mutilak hamabost urtetan sartzen dira taldera, eta soldaduzkara joan arte, edo ezkondu arte irauten dute taldearen barruan.

Taldeak bazituen eta baditu arduradun zenbait, egun bozketak eginda hautatzen direnak. Karguak denborazkoak dira, urtean edo bi urtetan behin berriz hauteskundeak eginik berritzen direlarik. Badute beren bankuko kontua, berek administratzen dutena. Hitz batez, udaletxetik aparte ibiltzean, gazteek badute autonomia handia eta indartsu infulu dezakete komunitatearen bizimoduan. De facto, zenbait herritan gatazta batzu sortu dira herriko etxearen pentsamoldea eta gazteen jokabidea bat ez egitean.

Antropologiak ingurugiro ezberdinetako gazte-taldeak ikertu ditu. Teoria aldetik ikusita, beharbada Afrikako gizarteetan suertatzen diren "zaharren" (agintarien) eta "gazteen" arteko harremanen azterketak emaitza interesgarriak plazaratu ditu, batez ere gizarte aurre-kapitalistetan boterearen eta esplotazioaren arazoak ikertu dituen lanak. Hego Euskalerriko giro hiritarretan "koadrilak" sortu dira, eta kasu soziologiko honetaz ere teoriatu da. Zuberoko testuingurua ez da Afrikakoa, ezta ere Bilbaokoa edo Eibarrekoa. Hala ere, argigarri liteke bi kasu hauetaz zer idatzi den jakitea, eta adibide etnografiko ezberdin hauek zer problema teoriko eta praktikoa planteatu dituzten kontutan harturik, Zuberoko nekazal gizarteko "gazteak" ea zertan diren erantzuten saiatzea.

Halako lana bete artean, ohar etnografiko batzu jakinarazi besterik ez dut nik hemen egin.

## **BEDERATZI ETA AZKENA**

Hasi dut saio hau Muskildin 1991. urtean eman zen Pastoralak orduko herriko jaietara zer ekarri zuen aipatu eta zenbait ikerbide ohartarazi asmotan. Txostenaren asmoa bete guran, gizarte iharduera, irudi eta harremanen espazio batzuz ihardun dut: kantaz, dantzaz, plazaz, ostatuaz, etxeaz, frontioiaz, elizaz, mahaikidetasunaz, eta azkenik gazteen etxe-ingurua edo 'obetakaz'.

Gazteen buru-jabetasuna erakusten duela obetaka honek adierazi dut lehengo atalean. Era berean, 'gazte' en unitate sozialaren eta 'etxea' ren hastapen antolatzailearen artean nola-baiteko tirabira sortzen dela ikustarazi nahi ukan dut. Azken atal honetan, berriro Pastoralaren gaiari etorritz, zera nahi nuke azpimarratu: *bai Pastoralak eta bai obetakak mapa sozialak marratzen dituzte.*

Modu askotara eratzten dira talde sozialak, eta gizarte taldeek beren artean elkar bereizteko bide ezberdinak har ditzateke. Naturak lurraldean markatzen dituen muga fisiko-geografikoak izan daiteke haietariko bide bat, hizkuntza beste bat, erlijioa beste bat, administrazio suerterren bat... eta abar. Komunitateak eta talde sozialak nola edo zeren bitartez tankeratzen diren adieraztea antropologiak nahiz soziologiak hartu dute beren gain, eta diziplina hauek erakusten digutenez, jende talde berean "komunitate" modelo edo muga ezberdinak batera



eman daitezke. Muskildin ere komunitate eredu eta komunitate muga ezberdinak agitzen dira. Segidan ematen dut egoera honen berri zehatzagoa.

Dakigunez, nekazari euskaldunen gizartea baserrian eta baserri bakoitzeko etxekoengan oinarritzen da. Frango hedatua da euskal kulturaren azterlariaren artean, oinarri metodologiko gisa behinik behin, herri bakoitza lurralde jakin bati datxekiola, eta espazio ikusgarri honetan komunitate aparteko bat tankeratzen dela:<sup>16</sup> hau da, lurralde batek bere izena badu; baita ere bere herriko etxea eta bere eliza; bertako pertsonak beren etxea badute; bertakoen eskubide eta betebeharrak administratibo nahiz politikoak gunean den udaletxearen bitartez betetzen dira; etxe bakoitzak elizaren barruan bere lekua badu; baita kanpusantuan ere; etxeen arteko auzatasuna udalerriaren muga fisikoan amaitzen da; bestela erranik, herri batek, eliza batek, administrazio batek, etxe multzo batek, jende batek... hauek denak, bakoitzak bere aldetik eta elkarrekin, komunitate bat bera osatzen dute. Tokioro ez da hala gertatzen. Muskildin ere ez. Ikusiko dugunez, "komunitate"aren kontzeptua bera "aldakor" eta "diskutigarri" bihurtzen da Muskildin.

Donibane Garazitik Maulerako bidean gatzozela, Oxkixeko mendi garaia igarota, Muskildi aurkitzen dugu begi aintzina. Gibelean, mendiaz bestealdean, Donaixti herria utzi dugu. Donaixti Behe Nafarroa da, Muskildi Zuberoa. Oxkixe mendi garai honetan bada San Antoni deritzan kapela edo baseliza bat. Kapelaren aurreak Muskildira eta, beraz, Zuberoari begiratzeko dio. Urtean zehar hiru aldiz joaten da erromesaldamenetako jendea bertan meza entzuzera. San Antonio Muskildin egon arren, Baxenabarreko zein Zuberoako beste herrietarako erromesak agertzen dira<sup>17</sup>.

San Antonioren kapela erreferentziapuntu geografiko interesgarria da, zeren eta bertan bereizten bait dira bi bailera edo haran natural: kapelaurrea, hots Muskildi eta Uhaiz handia; eta kapelatzea, hots, Donaixtira zuzentzen da Bidouzeko erreka, eta Baxenafarroa. Bidouzeko alderdi honetan bada Loga izeneko "kartier", "barrio" edo auzo bat. Auzo hau osatzen duten zortzi etxeak bai kokapen geografiko eta bai ibilbidez Donaixtikoko aldean egon arren, politiko eta administratiboki Muskildikoak dira.

Arrazoi ezberdinengatik behar du kartier honek aipamen berezia saio honetan. Geografiaren arauera Donaixtikoa behar lukeela begi bistan da. Administrazio boki hala ez dela hortxe dago. Zer gertatzen da bestelako kriterioak erabiltzen direnean? Eliza beha dezagun lehenbizi.

Logakoek Donaixtirako andabideak dituzte, bertan bait dute sepultura. Bertan entzuten dute meza eta bertako hilerrian dituzte ehorzketak. Hezkuntzari dagokionez, Donaixtikoko eskolara doaz umeak. Hizkuntzari dagokionez, ez dira zuberoeraz mintzatzen, baizik eta Donaixtikoko bizilagunak bezala. Beraz, bozketan edo hauteskundeetan ezik, Loga auzokoek Donaixtin dituzte beren gizarte harremanak. Ondorioz, administrazio ofizialak komunitate-era bat markatzen duen artean, geografiak, elizak, hizkuntzak eta auzatasunak bestelako komunitateak osatzen dituzte. Eta komunitate-eredu hauen arauera ulertuta, Logako jendea

16. Beste saio batean ematen dut kritizismo honen berri zabalagoa (ikus Fdz. de Larrinoa "Euskal Baserria Ikasketa Antropologikoetan", *Zientziartekoa* 5.zenbakia: 43-61 or., 1991).

17. Kapelaren historiaren berri labur baina zehatza Arnaud Aguergarayk eman du (ikus Aguergaray 1987 *Saint-Antoine de Musculdy en Soule: la surprenante histoire de l'inmense "chapelle de la Paix", 1385 à nos jours*. Lourdes).

ez dago Muskildiko beste kartierretako jendearekin harremanerik, erran nahi baita, Muskildiko egunerotasunak osatzen dituen komunitate-erlazioetik at geratzen dela. Logako auzaokoe beren eguneroko komunitate-erlazioak Donaixtikoko egunerokotasunean dituzte aspalditik.

Arras interesgarria da gazteen unitate sozialak eta Pastoralak dibujatzen dituzten komunitateei begiratzea, zeren eta kontraste nabariak antzematen bait ditugu. Azpimarratzekoa da 1985. urtera arte Logako gazteak Donaixtikoko gazteen taldean izan direla, ordura arte Muskildiko gazteen obetakan parte hartzen ez zutelarik, beti Donaixtikoko etxe-inguruan bait ziharduten. Beraz, Muskildiko besteetan agertu baino, Donaixtikoeetan ari ziren. Modu berean, Muskildiko gazteak ez zetozen Logara beren 'obetaka' egitera. Areago, aspaldi honetatik badago bi herrietako gazteen artean antagonismo antzeko sentimendu bat.

Ehun urte baino gehiago igaran ondoren, 1985. urtean Muskildik Pastoral bat ematea erabaki zuen. Pastoralak egiteko, anitz jokalarik behar dira, eta pertsonaierik inportateenak abots on-onoak behar dira izan. Logan ere baziren abots ederrak. Hauetako Pastoralaren antolatzaileek Muskildiko Pastoralen parte har zezaten eskatu zieten. Onartu egin zuten proposapena. Lehen aipatu lez, Pastoralak egiteak "errepeticioak", "monstrakak" edo saio askotxo dakartza. Urtarrilean hasi eta Uztailera arte astero biltzen dira partaleak, kantuak, bertsetak eta mugimenduak ikasteko. Dударik gabe, lagungoa edo pertsonen arteko komunikazioa eta harremanak bizten dira. Hala gertatu zen Donaixti aldeko Loga auzokoen eta Muskildiko aldeko auzoetako artean.

1985. urtean Muskildin eratu zen Pastoralak beste komunitate-eredu bat osatu zuen. Are gehiago, ordudunik partizipatzen dute Logako gazteek Muskildiko obetakan. Eta obetakaren muga sozialak hedatu dira, ordudunik ere Muskildiko obetakak Logako etxeak bisitatzen ditu eta. Komunitate-eredu berri hau berrindartzea etorri ziren 1991. urteko Pastoralak eta bestak: saio honen hasieran Xabi Elgart-ek bai Pastoralen eta bai Muskildiko jaietan jokatu zuen paper eder eta unkiagarria ohartarazten nuen; Xabi Elgart gaztea Loga auzokoa da.

Geografia, administrazioa, udalerria, elizkizunak, errito 'profanoak', eta pertsonen beren askripzio-kriterioak jokoan ari dira komunitate-modeloak osatzerakoan. Horrexegatik dira komunitate-ereduen mugak *aldakorrak*, zeren eta mementu historiko bakoitzean indarrak gehien erakusten duen eredu zein den arauera definitzen bait dira jende-taldeak. Eta arrazoi honexegatik ere dira *diskutigarriak*, lehen aurreratzen nuen bezala, komunitate-ereduen mugak. Azken ideia hau garatzeko, berriz ere San Antoni basiliza eta Xabi Elgart dakartzat adibide gisa.

1991. urteko Abuztuak 14ean, gaueko 9etan Kantu Festibal bat agitu zen Maule ondoko Garindaine herriko pilotaleku estalian. Aspaldi honetan hasi dira Garindainen Festibal hau urtero antolatzen. Ohitura dute ezen, kantari eta koru ezagunek kantatzeaz gain, urteko Pastoralaren kantu zenbait abes ditzan Pastoralak ematen duen herriak. 1991. urte honetan Muskildiko gonbidatu dute. Kantari eta koru gehienak Zuberoakoak eta Baxenabarrakoak ziren. Agian hala zelako hasi zen bere berbaldia festibalaren aurkezlea San Antonio kapela aipatzearekin. Eta honela erantsiz, "erdi Muskildin, erdi Donaixtin den kapela". Hau entzuteak harritu ninduen, zeren eta lur-jabegoari dagokiola bederen, Muskildin bait dago kapela. Festibala aurrera joan zen, eta Muskildiarrei beren txanda heldu zitzaion. Kantuen artean, Solange Chimixen eta Xabi Elgarten abestia zegoen. Aurkezleak egin zuen sarreran honela erran zion: "Xabi Elgart San Antoni kartierrakoa da, beraz erdi Muskildiarra, erdi Donaixtiarra". Muskildikoek txistuka hasi ziren, beren desakordioa erakusteko asmotan. Zer

gertatzen ari zen galdetu nion neure aldamenean eserita zegoenari eta hau jakinarazi zidan: sortzez, Donaixtikoa zen Festibalaren aurkezlea, Garindainen ezkondua.

Begi bistan da Donaixtirako bindikatzen zuela publikoki Loga auzoa. Kontutan hartzekoa da Loga aldeko basoa zabala eta aberatsa dela.

Laburbilpen gisa, erran dezagun ez ditugula ikusi behar komunitate-ereduen mugek talde sozialak orekan eta armonian konposatuz; ezta ere talde homogeenak osatuz. Begi bistan da antropologoek erritualei begiratzen dietela gizarte taldeak identifikatzeko. Hala ere, taldeen identifikatze hau lehendabiziko pausoa besterik ez da gizartearen azterketan, zeren behin identifikatuz gero, beren harreman ekonomiko eta politikoetan behatu behar bait ditugu. Taldeen identifikapen sozial, ekonomiko eta politiko hauek murratzerakoan, bestalde, ekoizpen kulturalak ere traza-egile izan ohi dira.